# Motorola

## FIRE -aren erabiltzailearen eskuliburua




LIFE. POWERED.

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

# ZORIONAK!

## MOTOROLA FIRE™

MOTOROLA **FIRE™** diseinu dotorea eta aukera-sorta zabala dituen terminal bat da; besteak beste, bideo- eta musika-funtzioak, Interneterako sarbidea eta lanerako tresna ugari eskaintzen dizkizu.

- Bideo mugikorra: grabatu eta ikusi bideoak, edota deskargatu eta ikusi streaming bidez telefonoan bertan.
- Argazkiak: atera argazki bikainak errendimendu handiko kamerarekin, eta partekatu.
- Internet: atera ahalik eta etekin handiena Interneti, Adobe® Flash® Player-ekiko bateragarritasunari esker. Egin nahi duzun guztia –hala nola bilaketak egin eta nabigatu–, askoz ere modu errazagoan.

Oharra: litekeena da aplikazio eta funtzio batzuk ez egotea erabilgarri herrialde guztietan.

Kontuz: Telefonoa lehen aldiz erabili baino lehen, irakurri eskuliburu honen atzean dagoen lege-informazioa eta segurtasun-informazio garrantzitsua.

# GEHIAGO NAHI DUZU?

- **Laguntza:** telefonoaren eguneratzeak, PCrako softwarea, laguntza linean eta askoz gehiago hemen: www.motorola.com/support.
- **Osagarriak:** aurkitu telefonorako osagarriak hemen: www.motorola.es/products.

# TELEFONOA

*Teklak eta konektore garrantzitsuak*




**Oharra**: telefonoak OMTP entzungailuak soilik erabil ditzake.

**Oharra:** agian zure telefonoak itxura apur bat ezberdina izan dezake.

# EDUKIAK

LEHEN URRATSAK ........ 5
UKIPEN-PANTAILA ETA TEKLAK ........ 8
PANTAILA NAGUSIA ........ 13
DEIAK ........ 18
KONTAKTUAK ........ 24
MEZUAK ........ 26
TESTUA IDAZTEA ........ 30
AHOLKUAK ETA IRADOKIZUNAK ........ 32
INTERNET ........ 36
KOKAPENA ........ 38
ARGAZKIAK ETA BIDEOAK ........ 42
MUSIKA ........ 44
PERTSONALIZAZIOA ........ 48
KONEXIOAK ........ 51
SEGURTASUNA ........ 58
ARAZOAK KONPONTZEA ........ 60
SEGURTASUNA, ARAUDIA ETA LEGE-INFORMAZIOA ........ 61

# LEHEN URRATSAK

*Telefonoa azkar erabiltzen hasteko.*

## MUNTATZEA ETA KARGATZEA

1 Kendu tapa



2 Sartu SIM txartela



3 Sartu MicroSD txartela (baliteke dagoeneko barruan izatea)



4 Sartu bateria



5 Jarri tapa



6 Kargatu



**Kontuz:** kontsultatu **"BATERIA ERABILTZEA ETA ZAINTZEA"** 61. orrialdean.

**Aholkua:** bateriaren karga luzatzeko, kontsultatu **"BATERIARI BURUZKO AHOLKUAK"**, 34. orrialdean.

## PIZTEA ETA ITZALTZEA

Telefonoa pizteko, sakatu pizteko tekla (goian ezkerreko aldean).

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu pizteko tekla , eta, ondoren, sakatu **Apagar**.

**Oharra:** telefonoak datu-bolumen handia erabiltzen dituzten zerbitzuak eta aplikazioak onartzen ditu. Zure beharrak asetzen dituen datu-plan bat eskuratzea aholkatzen dizugu. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

## DESBLOKEATZEA

Telefonoa desblokeatzeko, ukitu desblokeatzeko ikonoa eta arrastatu eskuinerantz.

## SOINUA AKTIBATZEA ETA DESAKTIBATZEA

Telefonoaren soinua desaktibatzeko, ukitu soinuaren ikonoa eta arrastatu ezkerrerantz.

# WIFI® KONEXIOA

WiFi® konexio bat erabil dezakezu Interneteko sarbide are azkarragoa izateko. Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Ajustes de Wi-Fi**. Ukitu **Wi-Fi**, konexioa aktibatzeko, eta inguruan dauden haririk gabeko sareak bilatzeko. Hautatu konektatu nahi duzun sarea. Informazio gehiago, hemen: **“WIFI SAREAK”**, 54. orrialdean.

# UKIPEN-PANTAILA ETA TEKLAK

## UKIPEN-PANTAILAREN AKTIBAZIOA ETA DESAKTIBAZIOA

*Oinarrizko kontzeptu batzuk*

Ukipen-pantaila erabiltzean aktibatzen da, eta behar ez duzunean desaktibatzen da.

- Ukipen-pantaila aktibatzeko eta desaktibatzeko, pizteko tekla baino ez duzu erabili behar.
- Dei bat egiteko telefonoa belarri ondoan jartzen duzunean, ukipen-pantaila desaktibatu egiten da, konturatu gabe elementuak hauta ez ditzazun.
- Ukipen-pantailaren distira automatikoki doi dadin, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Brillo** eta aktibatu **Brillo automático**.

## UKIPEN-EKINTZEI BURUZKO AHOLKUAK

Hona hemen telefonotik nabigatzeko iradokizun batzuk.

## SAKATZEA

Ikono bat edo aukera bat hautatzeko, *ukitu* ezazu.



## LUZE SAKATZEA




Aukera bereziak irekitzeko, sakatu luze ikono bat edo beste elementu bat. Egin proba: pantaila nagusian, sakatu > **Contactos**, eta, gero, luze sakatu kontaktu bat, aukerak irekitzeko.

## ARRASTATZEA




Zerrenda batean gora eta behera mugitzeko edo poliki mugitzeko, arrastatu hatza ukipen-pantailan zehar. Egin proba: pantaila nagusian, sakatu > **Contactos**, eta, gero, arrastatu **kontaktuen** zerrenda gora edo behera.

**Aholkua:** zerrenda bat arrastatzean edo zerrendatik lerratzean, desplazamendu-barra bat azalduko da eskuinean. Arrastatu desplazamendu-barra, zerrenda aurkitu nahi duzun letraraino *(A-Z)* mugitzeko.

# LERRATZEA

Zerrenda batean gora eta behera joateko edo azkar mugitzeko, lerrarazi hatza ukipen-pantailatik (arrastatu azkar eta askatu).

**Aholkua:** zerrenda luze batean lerratzean, ukitu pantaila desplazamendua eteteko.

# ATXIMUR EGITEA, ZOOMA HANDITZEKO

Ikusi xeheki mapak, web-orriak eta argazkiak. Hurbiltzeko, sakatu pantaila bi hatzekin, eta lerrarazi hatzak bereiziz. Urruntzeko, arrastatu hatzak hurbilduz.



# TEKLEI BURUZKO AHOLKUAK

## MENU-TEKLA, HASIERAKO TEKLA, ATZERA TEKLA ETA BILAKETA-TEKLA

**Menu-tekla**
Sakatu ezazu, menuko aukerak irekitzeko.

**Hasierako tekla**



**Bilaketa-tekla**
Sakatu ezazu, testu-bilaketak egiteko

**Atzera tekla**

Sakatu hasierako tekla , irekiak dauden aplikazioak edo menuak ixteko eta pantaila nagusira itzultzeko. Pantaila nagusian, luze sakatu hasierako tekla , erabilitako azken aplikazioak bistaratzeko, eta, gero, sakatu aplikazio horietako bat, irekitzeko.

Sakatu bilaketa-tekla , testu-bilaketa bat egiteko.

Sakatu menu-tekla menuaren aukerak irekitzeko, edo sakatu atzera tekla , atzera egiteko.

## ETETEA ETA AKTIBATZEA

Bateria aurrezteko, ustekabean teklarik ez sakatzeko edota ukipen-pantailako orbanak ezabatzeko, aktibatu ukipen-pantailaren modu etena. Horretarako, sakatu pizteko botoia . Ukipen-pantaila aktibatzeko, pizteko tekla berriz sakatu baino ez duzu egin behar.

Telefonoaren modu etena automatikoki aktibatzeko zenbat denbora igaro behar den aldatzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Tiempo de espera de la pantalla**.

### PIZTEKO BOTOIAREN MENUA

Luze sakatu pizteko tekla , pizteko botoiaren menua irekitzeko; hor, zenbait aukera dituzu: telefonoa itzali (**Apagar**), eta **Modo silencio** eta **Modo avión** aktibatu edo desaktibatu.

### BOLUMENA DOITZEA

Sakatu bolumen-teklak txirrinaren bolumena (pantaila nagusian) edo entzungailuaren bolumena (dei batean) aldatzeko.




## PANTAILA BIRATZEA

Ukipen-pantailaren orientazioa alda daiteke, eta telefonoa biraraztean, posizio egokian bistaratu.

Joan hona: menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Pantalla giratoria**

# PANTAILA NAGUSIA

*Gehien behar dituzun gauzetarako zuzeneko sarbidea*

## ABIARAZTE BIZKORRA: PANTAILA NAGUSIA

Pantaila nagusiak informaziorik berriena ematen dizu toki bakar batean. Telefonoa piztean edo menu batetik hasierako tekla sakatzean ageri den pantaila da. Gutxi gora-behera itxura hau du:




Erabili widget-ak, zuzeneko sarbideak eta panelak bai lantokian bai etxean nahi duzun guztia ikusteko edo jolasteko.

# PANTAILA NAGUSIAREN ERABILERA ETA ALDAKETA

Pantaila nagusian, gogoko aplikazioak, web-markatzaileak, kontaktuak, posta-etiketak edota musika erreproduzitzeko zerrendak irekitzeko ikonoak dira zuzeneko sarbideak. Widget-ek, berriz, albisteak, eguraldia, mezuak eta bestelako nobedadeak bistaratzen dituzte.

Lerra zaitez pantaila nagusiko ezkerretik edo eskuinetik, zuzeneko sarbideen beste panel edo widget batzuk irekitzeko.

- Elementu bat **irekitzeko**, sakatu ezazu. Ukitu hasierako tekla , hasierako pantailara itzultzeko.

  **Aholkua:** widget bat irekitzean, ukitu menu-tekla , aukerak edo doikuntzak bistaratzeko.

- Elementu bat **gehitzeko** edo **pantaila-hondoa** aldatzeko, luze sakatu pantailako tarte huts bat **Añadir la pantalla principal** menua ikusi arte.

  Karpeta bat gehitu dezakezu, zuzeneko sarbideak antolatzeko.

- Elementuren bat **mugitzeko** edo **ezabatzeko**, luze sakatu bibrazio bat nabaritu arte. Ondoren, arrastatu pantailaren beheko aldeko beste puntu batera, beste panel batera edo zakarrontzira .

# APLIKAZIO-MENUA

## ABIARAZTE BIZKORRA: APLIKAZIO-MENUA



Aplikazio-menuak telefonoko aplikazio guztiak bistaratzen ditu. Pantaila nagusitik irekitzeko, sakatu .

Lerratu gorantz eta beherantz aplikazio guztiak ikusteko. Deskargatzen dituzun aplikazio berriak aplikazioen menuan gehitzen dira.

Aplikazio-menua ixteko, sakatu hasierako tekla edo atzera tekla .

# ZENBAIT APLIKAZIO ALDI BEREAN ERABILTZEA

Ez duzu zertan aplikazio bat itxi beste bat ireki baino lehen. Telefonoak aplikazio bat baino gehiago erabil ditzake aldi berean.

Aplikazio bat ireki dezakezu, beste bat exekutatu bitartean. Ukitu pantaila nagusiko botoia, pantaila nagusira itzultzeko; ukitu menu nagusia irekitzeko, eta, gero, ukitu ireki nahi duzun aplikazioa. Exekutatzen ari den aplikazio batetik beste batera aldatzeko, luze sakatu hasierako tekla irekita zer aplikazio dauden ikusteko, eta, gero, sakatu guztietatik nahi duzuna.

# BILAKETAK

Bilaketak egiteko, sakatu bilaketa-tekla telefonoaren aurreko aldean, edota ukitu bilaketa-widgeta, aplikazioen menuan.

# JAKINARAZPENAK ETA TELEFONOAREN EGOERA

Pantailaren goiko aldean, ezkerreko ikonoek jakinarazten dizute mezu eta gertakari berriak (jakinarazpenak) daudela. Eskuineko ikonoek telefonoaren egoera adierazten dizute. Lerratu barra beherantz, jakinarazpenen informazioa kontsultatzeko.







| | | | |
|---|---|---|---|
| | Ahots-postontziko mezua | | USB konexioa |
| | Bluetooth® aktibatuta | | Bluetooth-a konektatuta |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | WiFi® aktibatuta | | Hegaldi-modua |
| | Bibrazio-modua | | Modu isila |
| | Dei isildua | | Bozgorailua aktibatuta |
| | Firewalla aktibatuta | | Alarma konfiguratzea |
| | Bateria (erabat kargatuta) | | Bateria (kargatzen) |

# DEIAK

*Hitz egitearen poza*

## ABIARAZTE BIZKORRA: DEIAK

Pantaila nagusian, sakatu **Teléfono**.




Ireki Contactos, Registro (azken deiak) edo Favoritos, eta, gero, ukitu elementu bat deitzeko.

**Ezabatzea**

Ezkutatu teklatua azken deien eta kontaktuen zerrenda bistaratzeko.

**Telefonoa**




Eseki.

Telefono-konferentzia bat hasi.

Grabazioa hasi eta amaitu (memoria-txartelean gordetzen da, fitxategi batean).

**Oharra:** deien grabazioek pribatutasunaren arloko eta elkarrizketak grabatzeari buruzko estatuko legeak bete behar dituzte. Bete beti funtzio hau arautzen duten legeak eta erabilera-arauak.

- **Dei bat** egiteko, ukitu , sartu zenbakia eta, gero, ukitu .

  Markatzean, ukitu menu-tekla  **geldialdi** bat (bi segundoko geldialdia) sartzeko edo **itxaroteko** (erabiltzailea berresteko itxaroten da). **Nazioarteko** aurrezenbakia sartzeko, luze sakatu .

- Dei bati **erantzuteko**, arrastatu  eskuinerantz.

- Dei batean, sakatu menu-tekla  Bluetooth entzungailuetara aldatzeko. Sakatu pantaila nagusiko tekla  edo atzera tekla , dei aktiboaren pantaila ezkutatzeko (berriz irekitzeko, ukitu ).

  **Oharra:** gidatu bitartean osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzeak arreta galaraz dezake, eta baliteke debekatuta egotea. Errespetatu beti legeak, eta gidatu era seguru batean.

- Deia **amaitzeko**, sakatu .

- Dei bati **kasurik ez egiteko**, arrastatu  ezkerrera.

**Aholkua:** ukitu  **Teléfono** > **Favoritos** eta, gero, menu-tekla  **gogokoak** editatzeko.

# AZKEN DEIAK

Azken deiak bistaratzeko, ukitu **Teléfono** > **Registro**

- Luze sakatu erregistro bat dei bat egiteko, testu-mezu bat bidaltzeko, dei baten xehetasunak ikusteko edo zenbakia zure kontaktuei gehitzeko.
- Ukitu menu-tekla > **Borrar registro de llamadas** zerrenda ezabatzeko.

# KONFERENTZIA-DEIAK

Konferentzia-dei bat hasteko, deitu lehen zenbakira. Erantzutean, ukitu **Añadir** eta deitu hurrengo zenbakira. Hurrengo zenbakiak erantzuten duenean, sakatu **Conferencia**.

# ZURE TELEFONO-ZENBAKIA

Zure telefono-zenbakia kontsultatzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Acerca del teléfono** > **Estado** > **Mi número de teléfono**.

# ZURE DEI-IDENTIFIKATZAILEA

Deitzen ari den pertsonak zure zenbakia ez ikusteko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ajustes de llamadas** > **Configuración adicional** > **ID del emisor**.

## DEIA DESBIDERATZEA ETA DEIA ZAIN FUNTZIOA

Deien desbideratzea aktibatzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ajustes de llamadas** > **Desvío de llamada**. Jasotzen dituzun dei guztiak desbidera ditzakezu, edo hitz egiten ari zaren bitartean, erantzuten ez duzunean edo estaldurarik ez duzunean jasotzen dituzunak bakarrik.

Deia zain funtzioa aktibatzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ajustes de llamada** > **Configuración adicional** > **Llamada en espera**.

Deia zain funtzioaren bidez, dei bat egiten ari zarela dei berriei erantzuteko aukera ematen dizu. Deia zain funtzioa desaktibatuta badago, dei berriak ahots-postontzira bideratuko dira zuzenean.

## DEIAK MURRIZTEA

Telefonotik zenbaki batzuetara soilik deitzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ajustes de llamadas** > **Marcación fija**.

- Markaketa finkoa aktibatzeko, hautatu **Activación de FDN**.
- Baimena duten zenbakiak gehitzeko edo ezabatzeko, ukitu **Lista de FDN**.

# HOZTEA

Zenbait kasutan, telefonoa oso tenperatura altuetan egon denean, adibidez, hozteko oharra agertzen da pantailan. Bateriak edo telefonoak kalterik izan ez dezan, jarraibide hauei jarraitu behar zaie, telefonoak gomendatutako tenperatura berreskuratzen duena arte. Telefonoa hozte-moduan dagoenean, larrialdi-deiak soilik egin daitezke.

# LARRIALDI-DEIAK

Oharra: Zerbitzu-hornitzaileak larrialdietarako telefonoak programatzen ditu, adibidez, 911 zenbakia edo 112. Zenbaki horietara edozein unetan deitu dezakezu, baita telefonoa blokeatuta dagoenean ere. larrialdietako zenbakiak aldatu egiten dira herrialde batetik bestera. Gerta daiteke programatutako larrialdietako zenbakiek leku guztietan ez funtzionatzea, eta batzuetan ezin da larrialdietako deirik egin sareko arazoen eraginez, ingurunearen eraginez edo interferentzien eraginez.

1 Ireki telefonoa eta ukitu  **Teléfono** (blokeatuta badago, ukitu **Llamada de emergencia**).

2 Idatzi larrialdietarako telefono-zenbakia.

3 Sakatu **Llamar** larrialdietako zenbakira deitzeko.

**Oharra:** telefono mugikorrak AGPS satelite-seinaleak erabil ditzake larrialdi-zerbitzuei zu bilatzen laguntzeko (“**KOKAPEN-ZERBITZUAK (GPS ETA AGPS)**”, 74. orrialdean).

# KONTAKTUAK

*Kontaktuak inoiz imajinatu ez bezala*

## ABIARAZTE BIZKORRA: KONTAKTUAK

Pantaila nagusian, ukitu > **Contactos**.




Aukeratu hauen artean: telefonoa, azken deiak eta gogokoak.

**Arrastatu** edo **lerratu**, mugitzeko.

**Sakatu**, irekitzeko. **Luze sakatu** aukerak irekitzeko.

Ukitu menura sartzeko, hor egin ditzakezu bilaketak, kontaktuak sortu eta abar.

- Kontaktu bat **sortzeko**, ukitu > **Contactos** > menua > **Contacto nuevo**, hautatu non gorde nahi duzun kontaktua, eta, azkenik, sartu datuak (pantailako teklatua ixteko, ukitu atzera tekla ).

- Kontaktu baten xehetasunak **irekitzeko**, ukitu > **Contactos** eta zuk nahi duzun kontaktua.
- Kontaktu **bati testu-mezu bat bidaltzeko edo editatzeko**, ukitu > **Contactos** eta, ondoren, luze sakatu kontaktua.

## KONTAKTUAK MEMORIA-TXARTELEAN ETA SIM TXARTELEAN

Kontaktu bat sortzean, aukera duzu Google-ko kontuan, telefonoko memorian edo SIM txartelean gordetzeko.

Memoria-txarteletik edo SIM txarteletik kontaktuak inportatu edo esportatzeko, ukitu > **Contactos**, eta, ondoren, sakatu menu-tekla > **Importar/Exportar**.

# MEZUAK

*Zenbaitetan hobe da testu-mezuak edo mezu elektronikoak bidaltzea*

## ABIARAZTE BIZKORRA: TESTU-MEZUAK

Pantaila nagusian, ukitu > **Mensajes**.




**Arrastatu** edo **lerratu**, mugitzeko.

**Sakatu**, irekitzeko. **Luze sakatu** aukerak irekitzeko.

Ukitu doikuntzak eta abar aldatzeko menura sartzeko.

**Aholkua:** mezu gehiago irakurtzeko, arrastatu edo lerratu gorantz.

- Testu-mezu bat **sortzeko**, ukitu > **Mensajes** > **Mensaje nuevo**. Aukerak ikusteko, sakatu menu-tekla .

- Testu-mezuak **irekitzeko**, ukitu > **Mensajes** eta, ondoren ukitu bidaltzailearen izena.

  Pantailaren goiko aldeko egoera-barran agertzen denean, arrastatu beherantz egoera-barra eta ukitu berriro mezua, hori irekitzeko.
- Testu-mezu bati **erantzuteko**, ireki mezua eta idatzi zure erantzuna beheko aldean dagoen testu-laukian.
- **Kopiatzeko** eta **birbidaltzeko**, besteak beste, ukitu > **Mensajes**, bidaltzailearen izena, eta, ondoren, luze sakatu mezua.

## FITXATEGI ERANTSIAK

Mezu batean fitxategi bat bidaltzeko, ukitu > **Mensajes** > **Mensaje nuevo**, eta, azkenik, ukitu menu-tekla > **Adjuntar**.

Fitxategi erantsi bat duen mezua irekitzean, ukitu **Deskargar** hori deskargatzeko. Ukitu deskargatutako fitxategi erantsia, hori irekitzeko, eta, ondoren, berriz ukitu gordetzeko, partekatzeko eta abar.

**Aholkua:** pisu handiko fitxategiak bidaltzeko eta jasotzeko, kontsultatu **"WIFI SAREAK"** atala, 54. orrialdean.

# POSTA ELEKTRONIKOA

- **Gmail** edo **Corporate** Microsoft® Exchange zerbitzariko kontuak **konfiguratzeko**, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Cuentas y sincronización** > **Añadir cuenta**. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

  Posta elektronikoko kontu estandar bat konfiguratzeko, ukitu > > **Correo electrónico**, eta jarraitu laguntzailearen jarraibideei. Kontu estandar gehiago gehitzeko, ireki **Correo electrónico** eta sakatu menu-tekla > **Cuentas** > menu-tekla > **Añadir cuenta**. Xehetasun gehiago behar izanez gero, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

- Mezu elektroniko bat **irekitzeko**, ukitu > **Correo electrónico** edo **Gmail**. Ukitu mezu bat hori irekitzeko.

  Aholkua: Sakatu menu-tekla , **Actualizar** edo **Buscar** aukerak ikusteko.

- Mezu elektroniko bat **sortzeko** ukitu > **Correo electrónico** edo **Gmail** eta, ondoren, sakatu menu-tekla > **Redactar**.

  Aholkua: sakatu menu-tekla **Adjuntar** edo **Añadir Cc/CCO** aukerak erabiltzeko.

# AHOTS-POSTONTZIA

Ahots-mezu berri bat duzunean, agertuko da pantailaren goiko aldeko egoera-barran. Ahots-postontziko mezuak entzuteko, ukitu , eta, ondoren, luze sakatu **1**.

Ahots-postontziaren zenbakia aldatu nahi baduzu, pantaila nagusian, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ajustes de llamadas** > **Ajustes del buzón de voz**.

# TESTUA IDAZTEA

*Teklak eskura izan behar dituzunean*

## IDAZTEKO AHOLKUAK

| Honetarako: | |
|---|---|
| **Ordezko** karaktereak idazteko | Zenbakizko teklatuan, sakatu ALT [ALT]. Sakatu berriro sinboloetara/zenbakietara itzultzeko. |
| **Letra maiuskula bat** idazteko | Sakatu Mayus [⇪]. |
| **Letra maiuskulak soilik** idazteko, berriz Mayus [⇪] sakatzen duzun arte. | Sakatu Mayus [⇪] bi aldiz. Sakatu berriro letra minuskuletara itzultzeko. |
| Testu hautatua **ebaki** edo **kopiatzeko** | Luze sakatu testua eta, jarraian, sakatu **Cortar** edo **Copiar**. |

| Honetarako: | |
|---|---|
| Ebakitako edo kopiatutako testua itsasteko | Luze sakatu non itsatsi nahi duzun, eta, ondoren, sakatu **Pegar**. |
| Karaktere bat ezabatzeko (luze sakatu gehiago ezabatzeko). | Sakatu **Eliminar** ⌫. |

Testua idazteko konfigurazioa aldatzeko eta erabili dituzun hitzen hiztegia ikusteko, pantaila nagusian, sakatu menu-tekla ▦ > **Ajustes** > **Idioma y teclado**.

## TESTUA IDAZTEKO KONFIGURAZIOA

Joan hona: Menu-tekla ▦ > **Ajustes** > **Idioma y teclado**

- Hiztegia editatzeko, ukitu **Diccionario del usuario**.
- Ukipen-pantailako teklatuaren hizkuntza eta estiloa aldatzeko, sakatu **Seleccionar idioma**.
- Gailuaren teklatuko konfigurazioa aldatzeko, ukitu **Teclado integrado**.

# AHOLKUAK ETA IRADOKIZUNAK

*Aholku erabilgarri batzuk*

## LASTER TEKLAK

| Honetarako: | |
|---|---|
| **Pantailara nagusira** itzultzeko | Sakatu Inicio. |
| Markatutako **azken zenbakiak** bistaratzeko. | Sakatu **Teléfono** > **Registro**. |
| Telefonoa bertan behera **uzteko/ aktibatzeko** | Sakatu pizteko botoia. |
| **Hegazkin-modua** aktibatzea edo desaktibatzea | Luze sakatu pizteko botoia > **Modo avión.** |
| Telefonoaren **soinuak** aktibatzeko/ desaktibatzeko | Luze sakatu pizteko botoia > **Modo silencio**. |
| **Pantailaren itxarote-denbora** zehazteko | Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Tiempo de espera de la pantalla**. |

| Honetarako: | |
|---|---|
| **Bluetooth**-a aktibatzeko/ desaktibatzeko. | Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Bluetooth**. |
| **WiFi** konexioa aktibatzeko/ desaktibatzeko | Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas y redes** > **Wi-Fi**. |
| Pantaila nagusian **zuzeneko sarbide bat gehitzeko** | Luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat **Añadir la pantalla principal** menua irekitzeko, eta, ondoren, ukitu **Accesos directos**. Hautatu gehitu nahi duzun aplikazioa, markagailua edo zuzeneko sarbidea. |
| Zuzeneko sarbide bat edo widget bat **mugitzeko** | Luze sakatu widget-a edo zuzeneko sarbidea, bibrazio bat sentitzen duzun arte, eta, ondoren, arrastatu nahi duzun tokira. |

| Honetarako: | |
|---|---|
| Zuzeneko sarbide bat edo widget bat **ezabatzeko** | Luze sakatu widget bat edo zuzeneko sarbide bat bibrazio bat sentitzen duzun arte, eta, ondoren, arrastatu pantailaren goiko aldean dagoen zakarrontzira. |

# BATERIARI BURUZKO IRADOKIZUNAK

Telefonoa ordenagailu txiki bat da, informazio eta aplikazio ugari 3 G abiaduran ematen dizuna, eta ukipen-pantailaz osatua dagoena. Erabiltzen duzunaren arabera, telefonoak energia asko kontsumi dezake. Hori dela eta, bateriak karga batetik bestera duen autonomia areagotu nahi baduzu, hauen erabilera gutxitu dezakezu:

- Bideoak grabatzea eta ikustea, musika erreproduzitzea edo argazkiak ateratzea.
- pantaila nagusira informazioa transmititzen duten widget-ak, esaterako, berriak eta eguraldiaren informazioa ("PANTAILA NAGUSIAREN ERABILERA ETA ALDAKETA" 14. orrialdean).
- Bluetooth-a erabiltzea: sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Conexiones inalámbricas y redes** > **Bluetooth** (desactivar).

- WiFia erabiltzea: sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Wi-Fi** (desactivar).
- GPSa erabiltzea: sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ubicación y seguridad** > **Utilizar satélites GPS** (kendu hautaketa).
- Sarea bilatzea: estaldurarik ez baduzu, telefonoak sareak bilatu ez ditzan, luze sakatu pizteko tekla > **Modo avión**.
- Pantailaren distira: sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Brillo** > (balio baxuagoa).
- Pantailaren itxarote-denbora: Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Pantalla** > **Tiempo de espera de la pantalla** > (balio baxuagoa).

# INTERNET

*Nabigatu Interneten telefonoarekin*

## ABIARAZTE BIZKORRA: NABIGATZAILEA

Pantaila nagusian, ukitu > **Navegador**.




- Nabigatzailean edo pantaila nagusian **webgune baten helbide berri bat** sartzeko, nahikoa da **Buscar** sakatzea.

- **Hurbiltzeko edo urruntzeko**, bereizi edo elkartu hatzak.




Oharra: Internetera konektatzeko, telefonoak automatikoki erabiltzen du telefonia mugikorreko sarea. Litekeena da zure zerbitzu-hornitzaileak tarifa bat kobratzea Interneten nabigatzeagatik edo datuak deskargatzeagatik. Ezin bazara konektatu, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Aholkua: Internetera konektatzeko, **WIFI SAREAK** erabil dezakezu, 54. orrialdea.

## DESKARGAK

Nabigatzailetik fitxategiak deskargatzeko, sakatu fitxategi baten estekan edo luze sakatu irudi bat **Guardar imagen** hautatzeko.

Deskargatutako fitxategiak bistaratzeko, ukitu **Navegador** > > **Más** > **Descargas**. Luze sakatu elementu bat hori irekitzeko, xehetasunak ikusteko edo zerrendatik ezabatzeko.

**"APLIKAZIO-MENUA"** deskarga dezakezu, 15. orrialdean.

# KOKAPENA

*Non zaude eta nora zoaz*

## ABIARAZTE BIZKORRA: KOKAPENA

Pantaila nagusian, ukitu > **Maps**.




**Arrastatu edo lerratu, mugitzeko.**

**Ukitu** behin, irekitzeko, eta, ondoren, beste behin toki hori **toki nabarmen gisa markatzeko.**

Ukitu menua irekitzeko. Hor helbideak kontsultatu, toki nabarmenak eta leihoak ireki eta abar egin daitezke.

Google MapsTM-ek mapa-teknologia sendo eta intuitiboa eskaintzen du, baita negozio eta dendei buruzko tokiko informazioa ere (kokapena, harremanetarako datuak eta gidatzeko argibideak barne).

- Helbide bat bilatzeko, idatz ezazu goiko aldeko bilaketa-barran. Mapa mugitu egiten da helbidea bistaratzeko.

**Aholkua:** luze sakatu mapako puntu bat helbiderik hurbilena bistaratzeko.

- Dendak, jatetxeak eta zure inguruko bestelako toki batzuk bilatzeko, ukitu **Mi ubicación**, informazioa kontsultatzeko.
- Helbideak eskuratzeko, bilatu helbide bat mapan, ukitu ezazu eta sakatu menu-tekla > **Indicaciones**.
- Laguntza eskuratzeko, sakatu menu-tekla > **Más** > **Ayuda**.

## GOOGLE MAPS NAVIGATION™

Google Maps Navigation GPS nabigazio-sistema bat da, Internetera konektatuta dago eta ahots-gida du.

Nabigazioa irekitzeko, ukitu > **Navigation**.

Kasu egin jarraibideei helburua idazteko edo ozen esateko.

Informazio gehiago nahi baduzu, joan helbide honetara: www.google.com/mobile/navigation.

# LATITUDE

Latitude-ren bidez, zure familia eta lagunak non dauden ikus dezakezu Google Maps-en. Planifikatu ezazu non elkartu, egiaztatu guztiak etxera arazorik gabe heldu direla, edo, besterik gabe, kontaktuari eutsi. Ez arduratu, zure kokapena ez da partekatzen, horretarako baimenik eman ez baduzu. Erregistratu Latitude-n eta zure lagunak zure kokapena haiekin partekatzera gonbidatu ditzakezu edo besteen gonbidapenak onar ditzakezu.

Ukitu > **Maps**, eta, gero:

- Latitude-n sartzeko, sakatu menu-tekla > **Unirme a Latitude**. Irakurri pribatutasun-direktiba, eta, horrekin ados bazaude, hautatu **continuar**.
- Lagunak gehitzeko, sakatu menu-tekla > **Latitude** > menu-tekla > **Añadir amigos**.

  Sakatu **Seleccionar entre los contactos** edo **Añadir mediante dirección de correo electrónico**; ondoren, ukitu kontaktu bat eta **Añadir amigos**.

  Zure lagunak jakinarazpen bat jasoko du posta elektronikoz.
- **Lagunak ezabatzeko**, sakatu menu-tekla > **Latitude** lagun-zerrenda bistaratzeko. Ukitu izen bat, eta, ondoren, **Eliminar este amigo**.

- Eskaera bat jaso ondoren, zure kokapena partekatzeko, hautatu **Compartir la ubicación más exacta posible** (bistaratu zure kokapena eta ikusi gainerakoenak), **Compartir sólo el nombre de la ciudad** (zure kokapena ezkutatu baina besteenak ikusi) edo **Ocultarse de este amigo** (bi kokapenak ezkutuan geratuko dira).
- **Zure kokapena ezkutatzeko**, sakatu menu-tekla > **Latitude**, zure lagunen zerrenda bistaratzeko. Sakatu kontaktuaren izena, eta, ondoren, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **No detectar mi ubicación**.
- Latitude-tik **ateratzeko**, sakatu menu-tekla > **Latitude**, zure lagunen zerrenda bistaratzeko. Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Desactivar Latitude**.

# ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

*Grabatu ikusten duzuna eta partekatu ezazu*

## ABIARAZTE BIZKORRA: ARGAZKIAK ETA BIDEOAK

Edozein pantailan, ukitu telefonoaren eskuinaldean dagoen kameraren **tekla kamera** irekitzeko.




**Aholkua:** argazki eta bideo ahalik eta garbienak bermatzeko, garbitu objektiboa zapi leun eta lehor batekin.

- **Argazkia** ateratzeko, ireki kamera eta sakatu **kameraren tekla**.
- **Bideo** bat grabatzeko, ireki kamera eta ukitu bideokameraren ikonoa, bideokameraren modura aldatzeko. Sakatu **kameraren tekla** grabazioa gelditzeko.

# ARGAZKIAK ETA BIDEOAK IKUSTEA ETA PARTEKATZEA

Pantaila nagusian, ukitu **Galería**.

Lerratu pantaila eskuinerantz edo ezkerrerantz karpetak bistaratzeko. Ukitu karpeta bat zure argazkiak edo bideoak bistaratzeko, eta, ondoren, ukitu irudi txiki bat hori irekitzeko, partekatzeko edo ezabatzeko.

Aholkua: bisorean, ukitu goiko eskuinaldeko ertzeko irudi txikia, azken argazkia edo bideoa irekitzeko.



- **Hurbiltzeko**, sakatu pantaila bi hatzekin, eta lerrarazi hatzak bereiziz. Urruntzeko, arrastatu hatzak hurbilduz.
- Argazki bat edo bideo bat **bidaltzeko** edo **argitaratzeko**, sakatu **Menú** > **Compartir**.
- Argazki edo bideo bat **ezabatzeko**, sakatu **Menú** > **Eliminar**.
- Argazki bat pantaila-atzealde gisa edo kontaktu-argazki gisa ezartzeko, sakatu **Más** > E**stablecer como**.
- Argazki bat **ebakitzeko** edo **biratzeko**, ukitu **Más**.
- Bideo bat **erreproduzitzeko**, sakatu .

Aholkua: biratu telefonoa pantaila zabaleko ikuspegia lortzeko.

# MUSIKA

*Musika behar duzunean...*

## ABIARAZTE BIZKORRA: MUSIKA

Pantaila nagusian, ukitu > **Música** eta, ondoren, hautatu erreproduzitu nahi duzun abestia:




- Telefonoaren **bolumena** doitzeko, erabili bolumen-teklak.

- Abesti bat erreproduzitzen ari dela, sakatu menu-tekla , **erreprodukzio-zerrenda** bati gehitzeko edo **tonu gisa** erabiltzeko.

  Erreprodukzio-zerrenden izena editatzeko, ezabatzeko edo aldatzeko, ukitu **> Música**, hautatu **Listas de reproducción** fitxa eta, azkenik, luze sakatu erreprodukzio-zerrendaren izena.

- Erreproduzigailua **ezkutatzeko** eta beste aplikazio batzuk erabiltzeko, sakatu hasierako tekla . Musika erreproduzitzen jarraituko du. Erreproduzigailura itzultzeko, lerratu beherantz egoera-barra eta sakatu .

  **Aholkua**: musika-erreproduzigailuaren kontroletara azkar joateko, luze sakatu pantaila nagusiko eremu huts bat eta hautatu **Widget > Música**.

- Erreproduzigailua **geldiarazteko**, ukitu .

- **Hegaldia bat hartu aurretik,** sare eta haririk gabeko konexio guztiak desaktibatu behar dira musika entzuten jarraitzeko. Horregatik, luze sakatu pizteko tekla **> Modo avión.**

  **Oharra**: hegazkin-modua hautatzean, desaktibatu egiten dira haririk gabeko zerbitzu guztiak. WiFia edo Bluetooth-a aktibatu dezakezu, aire-lineak hala egiteko baimena ematen badu. Haririk gabeko beste ahots- eta datu-zerbitzu batzuek (deiak eta testu-mezuak, adibidez) desaktibatuta jarraituko dute hegazkin-moduan.

Larrialdi-deiak egin daitezke zure eskualdeko larrialdietako zenbakira (adibidez, 112).

Telefonoaren 3,5 mm-ko OMTP entzungailurako konektorea erabili kabledun entzungailuak konektatzeko edo haririk gabeko batzuk erabiltzeko Bluetooth bitartez (ikus **“BLUETOOTH GAILUAK”** 52. orrialdean).

FM **irrati**-kanalak entzuteko, konektatu 3,5 mm-ko OMTP entzungailuak eta sakatu  > **Radio FM**. Telefonoak entzungailuen kablea erabiltzen du antena gisa.

## MUSIKA-FITXATEGIAK

**Oharra:** copyright, badituzu eskubideak? Bete itzazu beti arauak. Kontsultatu “Edukiaren egile-eskubideak”, lege- eta segurtasun-informazioan.

Musika-erreproduzigailurako abestiak deskarga ditzakezu lineako zerbitzuen bidez edo zure ordenagailutik kopiatu ditzakezu. **Fitxategi-formatu** hauek onartzen ditu zure musika-erreproduzitzaileak: MP3, M4A, AAC, ACC+, MIDI, **WAV eta OGG Vorbis.**

**Oharra:** telefonoak ez ditu onartzen DRMrekin babestutako fitxategiak.

**Ordenagailutik** telefonora fitxategiak kopiatzeko, kontsultatu atal hauek **“KABLE BIDEZKO KONEXIOA”** 56. orrialdean edo **“BLUETOOTH GAILUAK”** 52. orrialdean.

**CD bat ordenagailuan fitxategi gisa gordetzeko** (CDa “kopiatzeko”), Microsoft™ Windows™ Media Player edo antzeko programa bat erabil dezakezu. Lehendabizi, ziurtatu formatua MP3ra aldatu duzula (hemen: Copiar > Formato en Windows Media Player).

# PERTSONALIZAZIOA

*Emaiozu ukitu pertsonal bat*

## ABIARAZTE BIZKORRA: PERTSONALIZAZIOA

Pantaila nagusian, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Sonido** o **Pantalla**.




Konfiguratu hauetako bakoitzaren bolumena: sarrerako deiak, multimedia-elementuak, alarmak eta jakinarazpenak.

**Mezuen eta deien jakinarazpenak**




Aktibatu edo desaktibatu menuko animazioak

- Sarrerako dei eta mezuentzat **txirrin** edo **bibrazio** bat aukeratzeko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Sonido**, eta, ondoren, hautatu **Tono del teléfono, Tono de notificación** edo **Vibración**.

- Zure txirrinaren, multimedia-elementuen eta alarmaren **bolumena ezartzeko**, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Sonido > Volumen.**

  Aholkua: sakatu bolumen-teklak txirrinaren bolumena (pantaila nagusian) edo entzungailuaren bolumena (dei batean) aldatzeko.




- **Teklatuaren soinuak** entzuteko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Sonido > Tonos táctiles sonoros.**
- **Menuaren hautaketa-soinuak** entzuteko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Sonido > Selección sonora.**
- **Pantaila-atzealde** berri bat konfiguratzeko, luze sakatu pantaila nagusiaren eremu huts bat eta, ondoren, ukitu **Fondos de pantalla.**
- Pantailaren **distira** doitzeko, sakatu menu-tekla **> Ajustes** **> Pantalla > Brillo.**
- Aplikazioetako askok **pantaila biratu** dezakete telefonoa biratzean. Aukera hori aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Pantalla > Pantalla giratoria.**
- Pantailako **animazioei** esker, pantailako mugimenduek arinagoak dirudite. Animazioak aktibatzeko edo desaktibatzeko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Pantalla > Animación.**

# PANTAILA-ATZEALDEA

Pantaila-atzealde berri bat konfiguratzeko, luze sakatu pantaila nagusiaren eremu huts bat eta, ondoren, ukitu **Fondos de pantalla**.

# HIZKUNTZA ETA ESKUALDEA

Eskualdea eta menuen hizkuntza zehaztea:

Joan hona: menu-tekla **> Ajustes > Idioma y teclado > Seleccionar idioma**

# DATA ETA ORDUA

Data, ordua, ordu-eremua eta formatuak finkatzea:

Joan hona: menu-tekla **> Ajustes > Fecha y hora**

# KONEXIOAK

*Etxean, bulegoan edo WiFi eremu batean*

## ABIARAZTE BIZKORRA: KONEXIOAK

Pantaila nagusian, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Ajustes de Bluetooth** edo **Ajustes de Wi-Fi**.




Aktibatu edo desaktibatu Bluetooth-a eta gailuen bilaketa

Aldatu telefonoaren Bluetooth gailuaren izena

Bilatu berriro

Konekta zaitez bilaketan aurkitutako gailu batera

Aktibatu edo desaktibatu WiFi konexioa eta sareen bilaketa

Konekta zaitez bilaketan aurkitutako gailu batera



- **Bluetooth gailuak** konektatzeko, sakatu menu-tekla ⊞ > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Ajustes de Bluetooth** > **Buscar dispositivos** (edo **Bluetooth**, hori desaktibatuta badago). Ukitu zure telefonoak aurkitu duen gailuetako bat konexioa egiteko.
- **WiFi sareetara** konektatzeko, sakatu menu-tekla ⊞ > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Ajustes de Wi-Fi** (ondoren, ukitu **Wi-Fi**, hori desaktibatuta badago). Ukitu zure telefonoak aurkitu duen sareetako bat konexioa egiteko.
- **Kable bidezko konexio bat** erabiltzeko, konektatu telefonoaren micro USB ataka ordenagailuaren USB ataka estandar batera, eta, ondoren, erabili programa informatiko bat fitxategiak telefonoko memoria-txarteletik ordenagailura transferitzeko edo alderantziz egiteko. Telefonoa bateragarria da 32 GBra arteko microSD txartelekin.

  Telefonoan, lerratu beherantz egoera-barra eta ukitu telefonoaren memoria-txartela aktibatzeko (aukerazko osagarria).

  Telefonoko kontrolatzaileen fitxategiak hemen deskarga ditzakezu: www.motorola.com/support.

## BLUETOOTHTM GAILUAK

**Oharra:** funtzio horretarako, aukerako osagarri bat behar da.

Telefonoa beste Bluetooth gailu batzuetara konekta dezakezu, deiak esku libreko gailuarekin egiteko, fitxategiak transferitzeko eta askoz gehiago:

1 Ziurtatu sinkronizatzen ari den gailua visible egoeran dagoela.
2 Sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Redes inalámbricas** > **Ajustes de Bluetooth**.
3 Ukitu **Buscar dispositivos** (**Bluetooth**, desaktibatuta badago). Telefonoak hurbil dauden gailuak bilatu eta bistaratzen ditu.
4 Sakatu gailu bat, horretara konektatzeko.
5 Beharrezkoa bada, sakatu **Sincronizar** edo idatzi gailuaren sarbide-gakoa (esaterako, **0000**) gailu horretara konektatzeko. Gailua konektatuta dagoenean, Bluetooth adierazlea agertzen da egoera-barran.

Lehenago konektatu zaren gailu batera berriro konektatzeko, nahikoa da gailua piztea.

Gailu bat deskonektatzeko, nahikoa da hori itzaltzea.

**Oharra:** gidatu bitartean osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzeak arreta galaraz dezake, eta baliteke debekatuta egotea. Errespetatu beti legeak, eta gidatu era seguru batean.

Aholkua: luze sakatu pantaila nagusiaren eremu huts bat, eta, ondoren, hautatu **Widgets > Control de energía**, **WiFi, Bluetooth, Utilizar satélites GPS** eta beste hainbat funtzio aktibatzen dituen widget bat irekitzeko.

Oharra: Frantzian, Bluetooth funtzioak eta Bluetooth-aren potentzia-mailak ezin dira erabili eraikinen kanpoaldean. Irrati-seinaleekin legez kontrako interferentziak izatea saihesteko, ez erabili Bluetooth funtzioak Frantzian, barneko espazioetan izan ezik.

# WIFI SAREAK

WiFi sareetara konekta zaitezke, Interneterako sarbide are azkarragoa lortzeko eta datuak deskargatzeko:

1 Sakatu menu-tekla > **Ajustes > Redes inalámbricas > Ajustes de Wi-Fi**.

2 Sakatu menu-tekla > **Buscar** (edo ukitu **Wi-Fi**, hori desaktibatuta badago). Telefonoak hurbilen dauden sareak bilatzen ditu.

   Telefonoaren MAC helbidea edo WiFiaren beste xehetasun batzuk ikusteko, sakatu menu-tekla > **Avanzado**.

3 Hautatu konektatu nahi duzun sarea.

4 Beharrezkoa balitz, sartu sare-administratzailearen datuak. Telefonoa konektatuta dagoenean, WiFi adierazlea agertzen da egoera-barran.

Elikadura aktibatuta dagoenean eta telefonoak lehenagotik erabilitako sare bat aurkitzen duenean, horra konektatuko da automatikoki eta ikonoa agertuko da egoera-barran.

Aholkua: luze sakatu pantaila nagusiaren eremu huts bat, eta, ondoren, hautatu **Widgets > Control de energía**, **WiFi, Bluetooth, Utilizar satélites GPS** eta beste hainbat funtzio aktibatzen dituen widget bat irekitzeko.

Oharra: Frantzian, WiFi funtzioak eta telefonoaren potentzia-mailak ezin dira erabili eraikinen kanpoaldean. Irrati-seinaleekin legez kontrako interferentziak izatea saihesteko, ez erabili WiFi funtzioak Frantzian, barneko espazioetan izan ezik. Irrati-seinaleekin legez kontrako interferentziak izatea saihesteko, ez erabili WiFi funtzioak Frantzian, barneko espazioetan izan ezik.

# KABLE BIDEZKO KONEXIOA

Kable bidezko konexio bat erabil dezakezu abestiak, argazkiak edo bestelako fitxategiak zure telefonotik ordenagailura transferitzeko. Hauek behar dituzu:

- Microsoft™ Windows™ edo Apple™ Macintosh™ duen ordenagailu bat.
- Datu-kable bat, mutur batean USB konektore estandarra duena eta beste muturrean USB konektore bat duena.
- Telefonoan microSD memoria-txartel bat izatea (32 GB artekoa), **"MUNTATZEA ETA KARGATZEA"** atalean (5. orrialdean) erakusten den bezala. Aholkua: memoria-txartelean eskura dagoen memoria ikusteko, pantaila nagusian, sakatu menu-tekla [menu] **> Ajustes > Almacenamiento**.

Telefonoa eta ordenagailua kable bidez konektatzeko:

1 Sartu memoria-txartel bat telefonoan, eta, ondoren, konektatu telefonoaren micro USB ataka ordenagailuaren USB ataka batekin.



**Oharra:** ordenagailuak telefonoaren kontrolatzailearen fitxategiak eskatzen baditu, deskarga itzazu hemen: www.motorola.com/support.

2 Telefonoan ikonoak agertu behar du egoera-barran. Lerratu beherantz egoera-barra eta ukitu telefonoaren memoria-txartela aktibatzeko.

3 Ordenagailuan programa bat ireki (Windows™ Mediaren erreproduzigailua musika-fitxategietarako, Microsoft™ Windowsen arakatzailea bestelako fitxategiak arrastatzeko eta askatzeko) eta erabili ezazu fitxategiak transferitzeko.

# SEGURTASUNA

*Babestu zure telefonoa*

## ABIARAZTE BIZKORRA: SEGURTASUNA

Pantaila nagusian, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ubicación y seguridad**.




Zehaztu pantaila aktibatzeko sartu behar den blokeo-eredua, PINa edo pasahitza.

Hautatu telefonoa piztean sartu behar den zenbaki-kodea.

Pasahitzaren zenbakiak eta letrak agertzen dira horiek sartzea (**** beharrean).

- Pantaila aktibatzen den bakoitzean sartu beharreko **blokeo-eredu bat, PIN bat** edo pasahitz bat zehazteko, sakatu menu-tekla > **Ajustes** > **Ubicación y seguridad** > **Bloqueo de pantalla**.

  Jarraitu argibideei eredua, PINa edo pasahitza sartzeko eta berresteko.

**Oharra**: telefonoa blokeatuta badago ere, larrialdi-deiak egin ahal izango dituzu (kontsultatu **"KONTAKTUAK"** atala, 24. orrialdean). Blokeatutako telefonoaren txirrinak jo egiten du, baina desblokeatu egin behar duzu, erantzun nahi baduzu.

- **SIM txartelerako PIN** kode bat ezartzeko, telefonoa pizten den bakoitzean sartu beharko dena, ukitu menu-tekla *(...)* **> Ajustes > Ubicación y seguridad > Bloqueo de tarjeta SIM > Bloquear tarjeta SIM**. Sartu txartelaren PIN kodea. Kodea aldatzeko, hautatu **Cambiar PIN de SIM**.

  **Kontuz**: PINa hiru aldiz jarraian gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egiten da. Desblokeatzeko, zure zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea erabili beharko duzu.

## BERRIRO EZARTZEA

Telefonoaren fabrika-konfigurazioa berrezartzeko eta telefonoko datu guztiak ezabatzeko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Privacidad > Restablecer datos de fábrica > Restablecer teléfono**.

**Oharra**: deskargatutako aplikazio guztiak eta telefonoaren erabiltzaile-datu guztiak ezabatuko dira. Memoria-txarteleko datuak ez dira ezabatuko.

# ARAZOAK KONPONTZEA

*Zu laguntzeko gaude*

## BLOKEOAK BERRESKURATZEA

Telefonoak pultsazioei eta teklei erantzuteari uzten badie, berrezartze azkar bat egin. Erauzi atzeko tapa eta pila (kontsultatu **"MUNTATZEA ETA KARGATZEA"** atala, 5. orrialdean), eta, ondoren, jarri berriz eta piztu telefonoa ohi bezala.

# *Segurtasuna, araudia eta lege-informazioa*

## Bateria erabiltzea eta haren segurtasuna

**Garrantzitsua: bateriak zuzen erabili eta gorde behar dira kalteak edo lesioak saihesteko**. Bateriekin erlazionatutako arazo gehienak sortzen dira horiek gaizki erabiltzeagatik, eta, bereziki, bateria kaltetuak etengabe erabiltzeagatik.

**EGIN BEHAR EZ DENA**

- **Bateria ez desmuntatu, kolpatu, zulatu, ebaki edo beste aldaketarik egin**.
- **Ez busti gailua eta bateria. *** Likidoak mugikorraren zirkuituetan sartu eta herdoildu dezakete.
- **Ez utzi bateria objektu metalikoekin kontaktuan**. Objektu metalikoak –bitxiak,esaterako– bateriaren kontaktu-puntuekin luzez kontaktuan badaude, bateria asko berotu daiteke.
- **Ez jarri telefono mugikorra bero-iturri batetatik gertu. *** Tenperatua altuek bateria puztea, isuriak izatea edo ongi ez funtzionatzea eragin dezakete.
- **Ez lehortu bateria bero-iturri edo aparatu elektriko baten bidez,** adibidez, ile-lehorgailu edo mikrouhin-labe baten bidez.

**EGIN BEHAR DENA**

- **Ez utzi gailua kotxean tenperatura altua denean.***
- **Ez utzi bateri edo mugikorra lurrera erortzen. *** Erortzen uzten badituzu –batez ere, gainazal gogor baten gainera erortzen badira– hondatu egin daitezke.*
- **Jarri harremanetan operadorearekin edo Motorolarekin erorketa baten, likidoen edo tenperatura altuen ondorioz telefonoa hondatzen bada.**

• **Oharra**: beti egiaztatu bateriaren gunea eta konektoreen estalkiak guztiz itxita daudela, bateria kondizio horiekin zuzenean kontaktuan izatea saihesteko, baita zure **gailu mugikorraren** dokumentuek kondizio horiek jasan ditzakeela adierazten badute ere.

**Garrantzitsua: Motorola markako kargagailuak eta bateriak erabiltzea gomendatzen dizu Motorolak, kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Motorolaren bermeak ez ditu estaltzen Motorolarenak ez diren bateriak edo kargagailuak erabiltzeagatik gailuak izan ditzakeen kalteak.**

Motorolak hologramak erabiltzen ditu bere baterietan, bateria originalak eta faltsutzeak bereiz ditzazun (baliteke azken horien segurtasun-babesa egokia ez izatea). Erosten dituzun bateriak "Motorola Original" holograma duela egiaztatu behar duzu. Pantailan, **Batería no válida**, **Imposible cargar**, edo antzeko mezuren bat agertzen bada, jarraitu urrats hauei:

- Atera bateria eta egiaztatu "Motorola Original" holograma duela.
- Hologramarik ez badu, ez da Motorola bateria bat.
- Holograma badu, jarri berriro bateria, eta saiatu berriro kargatzen.
- Mezua berriz agertzen bada, jar zaitez harremanetan Motorolak baimendutako zerbitzu-zentro batekin.

**Oharra**: Motorolarenak ez diren bateriak edo kargagailuak erabiliz gero, suteak, leherketak, ihesak edo beste zenbait gertaera izateko arriskua dago.

**Bateria zuzen eta era seguruan botatzeko eta birziklatzeko modua**: bateria zuzen botatzea segurtasunerako garrantzitsua izateaz gain, ingurumenerako garrantzitsua ere bada. Saltokietan edo operadoreen instalaziotan birzikla ditzakezu bateriak. Bateriak botatzeko eta birziklatzeko modu egokiari buruzko informazio gehiago behar baduzu, hemen aurkituko duzu: www.motorola.com/recycling.

**Ezabatzea**: bota berehala erabilitako bateriak, tokiko araudiaren arabera. Jarri harremanetan tokiko birziklatze-zentroarekin edo nazio mailako birziklatze-erakundeekin, bateriak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago jasotzeko.

**Oharra**: ez bota inoiz bateriak sutara, lehertu egin baitaitezke.

## Bateria kargatzea

**Produktuaren bateria kargatzeari buruzko xehetasunak**:

- Kargatzean, giro-tenperaturan izan bateria eta kargagailua, kargatzea eraginkorragoa izan dadin.
- Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egon direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzen.
- Bateria gehiegizko kargak eragindako kalteetatik babesten duten zirkuituak dituzte Motorola bateriek eta kargatze-sistemek.

## Beste fabrikatzaile batzuen osagarriak

Beste fabrikatzaile batzuen osagarriak erabiltzeak (besteak beste, kargagailuak, entzungailuak, estalkiak, babesgarriak, pantaila-babesleak eta memoria-txartelak) gailuaren errendimenduari eragin diezaioke Zenbait kasutan, arriskutsua izan daiteke beste fabrikatzaile batzuen osagarriak erabiltzea, eta gailu mugikorraren bermea ezeztatu dezake. Hemen aurkituko duzu Motorolaren osagarri-zerrenda: www.motorola.com/products.

## Gidatzean hartu beharreko neurriak

Segurtasunez eta arduraz gidatzea da zure ardura nagusia auto bat gidatzen ari zarenean. Gidatzen ari zarenean dei bat egiteko gailu mugikorrak edo mugikorren osagarriak erabiltzeak arreta galtzea eragin dezake. Osagarri edo gailu mugikor bat erabiltzea debekatuta edo mugatuta egon daiteke eremu batzuetan. Egin kasu beti horrelako produktuen erabilera arautzen duten lege eta arauei.

**Gidatzean, ez egin INOIZ ekintza hauek:**

- Ez idatzi eta ez irakurri mezurik.
- Ez idatzi daturik eta ez berrikusi idatzitako datuak.
- Ez nabigatu Interneten.
- Ez idatzi nabigazio-informaziorik.
- Ez egin zure arreta galaraz dezaketen beste zenbait funtzio.

**Gidatzean, BETI egin ekintza hauek:**

- Begiratu errepidera.
- Erabili esku libreko gailu bat eskuragarri baduzu edo zure eremuan legeak hala behartzen badu.
- Sartu helburuko informazioa nabigazio-gailuan gidatzen hasi aurretik.
- Erabili ahots bidez aktibatzen diren funtzioak (esaterako, ahots bidez markatzea) eta ahots bidezko funtzioak (adibidez, ohar soinudunak), erabilgarri badaude.
- Errespetatu autoan mugikorrak eta horien osagarriak erabiltzeari buruzko herrialdeko legeak eta arauak.
- Ezin baduzu arreta gidatzean jarri, amaitu deia edo egiten ari zaren zeregina.

Gogoratu, jarrai itzazu eskuliburu honetako “Gidatzen ari zarela arduraz erabiltzea” atalean eta www.motorola.com/callsmart web-orrian (ingelesez) aurkituko dituzun argibideak.

## Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia-krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola bideoak erreproduzitzean edo bideo-jokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsonei ere gertatzea.

Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideoak erreproduzitu, bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen (zure mugikorrak funtzio hori izanez gero). Sintoma hauetakoren izanez gero, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana: konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa. Ona da noizean behin atseden bat egitea, gelako argiak piztuta uztea, ordu bakoitzeko 15 minutuko atseden bat egitea edo erabiltzeari uztea, nekatuta bazaude.

## Bolumen handian erabiltzeari buruzko neurriak



**Oharra**: edozein motatako soinu altuak denbora luzez entzuteak kalte egin diezaioke zure entzumen-gaitasunari. Soinu-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta denbora gutxiagoan eragingo dio zure entzumen-gaitasunari. Zure entzumen-gaitasuna babesteko:

- Mugatu entzungailuak bolumen altuan erabiltzeko denbora.
- Saiatu bolumena ez igotzen ingurune zaratatsuak blokeatzeko.
- Zure ondoan hitz egiten ari diren pertsonei entzuten ez badiezu, jaitsi bolumena.

Entzumen-eragozpenak badituzu, presio- eta taponatze-sentsazioa, burrunba edo gortasuna barne, gailuarekin entzungailuak erabiltzeari utzi behar zaio, eta entzumena azterketa bat egin.

Entzumenari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus gure webgunea: direct.motorola.com/hellomoto/nss/AcousticSafety.asp (ingelesez bakarrik).

## Errepikatzen diren mugimenduak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Gailua erabiltzen ari zarela edo erabili ondoren ondoeza desagertzen ez bada, utzi erabiltzeari eta joan medikuarengana.

## Haurrak

**Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.** Produktu hauek ez dira jostailuak, eta arriskutsuak izan daitezke haur txikientzat. Adibidez:

- Pieza txikiekin eta pieza desmuntagarriekin haurrak ito egin daitezke.
- Gaizki erabiliz gero, soinu altuak sor daitezke, eta entzumen-kalteak sor ditzakete.
- Bateriak gaizki erabiltzeak gehiegi berotu ditzake, eta erre egin daitezke.

Ordenagailuarekin egiten den era berean, litekeena da haurrek gailu mugikorra nola erabiltzen duten kontrolatu nahi izatea, haientzat oso egokiak ez diren edukietara edo aplikazioetara sar ez daitezen.

## Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori apurtu daiteke produktuak kolpe handia jasotzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu tekniko gaitu batean beira aldatu arte.

## Erabilerari buruzko oharrak

Gune publikoetan, egin kasu gailu mugikorrak erabiltzeari buruzko seinaleei.

### Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Lehergaiak egon daitezkeen inguruneak seinaleztatuak egon ohi dira, baina ez beti, eta barnean hartzen dituzte erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegiratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak.

Ingurune horietako batean zaudenean, itzali gailu mugikorra eta ez erauzi, ezarri edo kargatu bateriak, "bereziki segurua" den telefono-modelo bat denean izan ezik (esaterako, Factory Mutual-ek, CSAk edo ULk onartutakoak). Gailu mugikorra gailu medikuarekin erabiltzeari buruzko zalantzarik baduzu, galdetu osasun-zerbitzuen hornitzaileari.

## Irudi-testuak

Bateriak, kargagailuak edo telefono mugikorrak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du. |
|  | Telefono mugikorra edo bateria ez dira sutara bota behar. |
|   | Beharbada, bateria edo telefono mugikorra tokiko legeen arabera birziklatu behar dira. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko. |
|  | Ez bota gailu mugikorra edo bateria zure etxeko zakarrontzira. Informazio gehiago lortzeko, ikus “Birziklapena” atala. |
|  | Ez erabili erremintarik. |
|  | Barnean erabiltzeko bakarrik. |
|  | Entzumenari kalte egin diezaioke musika edo bestelako soinuak entzungailuekin oso ozen entzuteak. |

# Irrati-maiztasuneko (IM) energia

## Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Zure mugikorrak transmisore eta hartzaile bana ditu. Piztuta dagonean, IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono mugikorraren bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du. Telefono mugikorra bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

## IM energia erabiltzean hartu beharreko neurriak

Zure telefono mugikorrak errendimendu egokia izan dezan eta gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruzko arauak betetzen direla bermatzeko, jarraitu beti jarraibide eta neurri hauei.

- Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe.
- Mugikorra soinean badaramazu, jar ezazu beti Motorolak baimendutako klip, euskarri, pintza, zorro edo arnesen batean. Motorolak banatutako edo baimendutako garraio-osagarri bat erabiltzen ez baduzu, jarri mugikorra eta antena zure gorputzetik 2,5 cm-ra, transmititzen ari den bitartean.
- Motorolak eman edo homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak eman edo homologatutako osagarrien zerrenda bat topa dezakezu www.motorola.com web-orrian.

## IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

Ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Kasu batzuetan, zure telefono mugikorrak interferentziak sor ditzake beste gailu batzuekin.

## Interferentzia-arazoak saihesteko, jarraitu urrats hauei

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak dauden lekuetan.

Hegazkinetan, itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun.

### Gailu medikoak

Gailu medikoren bat ezarrita baduzu, adibidez, taupada-markagailu bat edo desfibriladore bat, galdetu medikuari mugikorra erabiltzen hasi aurretik. Gailu medikoak ezarrita dituzten pertsonek ohar hauek eduki behar dituzte kontuan:

- Telefonoa piztuta dagoenean, gailu medikuetatik 20 zentimetrora baino gehiagora eduki behar dute BETI.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Mugikorra erabili behar dute gailu medikoa dagoen aldearen aurkako aldean, interferentziak ahalik eta gehien gutxitzeko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute, arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

Irakurri eta kontuan hartu gailu medikoaren fabrikatzailearen jarraibideak. Mugikorra gailu medikoarekin batera erabiltzeko moduari buruzko galderaren bat baduzu, jarri harremanetan mediku-zerbitzuen zure hornitzailearekin.

## Absortzio Espezifikoaren Koefizientea (ICNIRP)

**GAILU MUGIKOR HONEK BETE EGITEN DITU IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN NAZIOARTEKO ARAUDIA**

Zure gailu mugikorra irrati-uhinen transmisorea eta hartzailea da. Irrati-uhinen (irrati-maiztasuneko eremu elektromagnetikoen) eragina jasateko nazioarteko araudian finkatutako mugak ez gainditzeko diseinatuta dago. Arau horiek ICNIRP zientzia-erakunde independenteak garatu ditu eta pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna ziurtatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzte. Irrati-uhinen eraginari buruzko araudi horiek Absortzio Espezifikoaren Koefizientea (AEK) izeneko neurri-unitatea ibiltzen dute. Gailu mugikorretarako, 2 watt/kilogramo muga dago.

AEK kalkulatzeko probak funtzionamendu estandarreko posizioetan egiten dira, eta telefonoak berriz potentzia-maila ziurtatu handienera transmititzen du probaturiko frekuentzia-banda guztietan. Taula honetan ikus daiteke zure gailu-modelorako baimendutako AEK, ICNIRPen arauen arabera:

| | | |
|---|---|---|
| AEK balioa buruan | UMTS 900/2100 + WiFi + Bluetooth | 0,819 W/kg |
| AEK balioa gorputzean | UMTS 900/850 + WiFi + Bluetooth | 0,669 W/kg |

Gailua erabiltzean, horren benetako AEK balioak adierazitako balio horiek baino askoz txikiagoak dira. Hori dela eta, sistemaren eraginkortasuna hobetzeko eta sareko interferentziak murrizteko, zure gailu mugikorraren funtzionamendu-potentzia automatikoki murrizten da, deirako potentzia osoa beharrezkoa ez denean. Gailuaren potentzia-irteera hori zenbat eta gutxiago izan, orduan eta AEK balio txikiagoa izango du.

Gailua osagarri homologatu batekin gorputzera lotuta edo gorputzetik 2,5 cm-ra jarrita egin dira AEK balioak neurtzeko probak. Gailua gorputzean eramatean IM energiaren eragina erregulatzen duten araudiak betetzeko, gailua osagarri homologatuan jarri behar da edo gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra. Osagarri homologatu bat erabiltzen ez baduzu, ziurtatu erabiltzen ari zaren produktuak ez duela metalik eta telefonoa gorputzetik 2,5 m-ra duzula.

Munduko Osasun Erakundeak berretsi du egindako azterketa zientifikoak ikusita ez dela beharrezkoa arreta berezirik hartzea gailu mugikorrak erabiltzeko. Gomendatzen dutenez, eraginpean zauden denbora are gehiago murriztu nahi baduzu, erraz egin dezakezu gailuaren erabilera mugatuta edo esku libreko gailu bat erabilita, gailu mugikorra burutik eta gorputzetik urrun izateko. Informazio gehiagorako, jo Munduko Osasun Erakundearen webgunera (www.who.int/emf) edo hona: www.motorola.com/rfhealth (Motorola Mobility, Inc.).

## Munduko Osasun Erakundearen informazioa (MOE)

Azken bi hamarkadetan azterketa ugari egin dira telefono mugikorrak osasunerako arriskutsuak diren edo ez jakiteko. Orain arte, ez da aurkitu telefono mugikorren erabilerak osasunean inolako kalterik eragiten duenik."
Fuente: OME. 193. informazio-oharra.
Informazio osagarria: http://www.who.int/emf

## Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA
1890/2000 Araudia,
2011ko ekainaren 23a

| | |
|---|---|
| Erreferentzia | LV/021/11/35549304/D |
| Enpresa ziurtatzailea | Motorola Mobility Ltd. Redwood Crockford Lane, Chineham Business Park, Basingstoke RG24 8WQ ERRESUMA BATUA |

Produktu hau ziurtatzen du:

| | |
|---|---|
| Modeloaren izena: | DYQ6-334411A11 |
| Modeloaren izena merkatuan: | XT311 |
| Deskribapena | Telefono mugikorra hauekin da bateragarria: WCDMA900/2100, GSM 850/900/1800/1900, 2. klaseko Bluetooth-a, IEEE802.11b/g/n. |
| Oharra | Ekipoak 2. klaseko R&TTE identifikazioa eramango du "" #3036. |

[Frantzian barnean erabiltzeko baimena du soilik]

Motorola Inc.-ek adierazten du, bere erantzukizunpean, arestian aipatutako produktuek betetzen dituztela **irratiko eta telekomunikazioetako Europako 1999/5/EE Direktibaren (R&TTE)** betebehar nagusiak. 10. artikuluan erreferentzia egiten zaion ebaluazio-prozedura (horri buruzko informazio gehiago ematen da 199/5/EE zuzentarauaren V. eranskinean) jakinarazitako erakunde honen parte-hartzearekin gauzatu da: **BABT**, Balfour House, Churchfield Road, Walton on Thames, KT12 2TD, Erresuma Batua.
**Jakinarazitako erakundearen zenbakia: 0168**

Hori dela eta, CE 0168 ⓘ agertzen da produktuan.




Produktuaren onarpen-zenbakia

Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke. Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, 1999/5/EE direktibaren 3. artikuluko baldintza espezifikoak.

| | |
|---|---|
| 3.1.a artikulua | EN 50360 :2001 |
| | EN 60950-1 :2006 +A11 2009 |
| 3.1.b artikulua | EN 301 489-1 V1.8.1 |
| | EN 301 489-7 V1.3.1 |
| | EN 301 489-17 V2.1.1 |
| | EN 301 489-24 V1.4.1 |

| | |
|---|---|
| 3.2 artikulua | EN 300 328 V1.7.1<br>EN 301 511 V9.0.2<br>EN 301 908-1, -2 V3.2.1 |
| 10 artikulua | Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako direktibaren oinarrizko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BABT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa. |

Arestian deskribatutako produktuaren eraikuntza teknikoko fitxategia (TCF, Technical Construction File), dokumentu hau berresten duena, ziurtatze-enpresa horrek berak du.

| Izena: | Firma: | Kargua: | Emisio-data: | Azken berrikuspena: |
|---|---|---|---|---|
| Mike Roper |  | ziurtapen eta onarpenen zuzendaria | 2011ko ekainaren 23a | N/A |

Motorola Mobility Ltd-ren idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

# FCCren oharra erabiltzaileentzat

**Deklarazio hau produktuaren etiketan FCCren logotipoa duten produktu guztiei dagokie.**

Ekipo honek proba bat gainditu du eta ikusi da B motako gailu digitaletarako ezarritako mugak betetzen dituela, FCCren Araudiko 15. atalean ezarritakoaren arabera. Ikus 47 CFR, 15.105 (3) sek. Muga horien helburua da arrazoizko babesa ematea etxeko instalazioetan kalteak eragin ditzaketen interferentzien aurka. Ekipo honek irrati-maiztasunaren energia sor, erabil eta igor dezake, eta jarraibideen arabera instalatzeko eta erabiltzen ez bada, interferentzia kaltegarriak sor ditzake irrati bidezko komunikazioetan. Hala ere, ezin da bermatu instalazio jakin batean interferentziarik sortuko ez denik. Ekipo honek irratia edo telebista jasotzeko garaian interferentzia kaltegarriak sortuko balitu (ekipoa itzali eta berriro piztuta ikus daiteke hori), erabiltzaileari aholkatzen zaio interferentzia hori zuzen dezala aukera hauetako baten bidez:

- Antena hartzailearen orientazioa edo kokapena aldatu.
- Hartzailearen eta ekipoaren arteko tartea handitu.
- Ekipoa eta hartzailea korronte-hartuneen zirkuitu desberdinera konektatu.
- Irrati/telebista gaietan aditua den banatzaileari edo teknikariari laguntza eskatu.

Gailu honek FCCren araudiko 15. atalean ezarritakoa betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar eta (2) gailu honek jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne. Ikus 47 CFR, 15,19 (3) sek.

Motorolak ez du onartu erabiltzaileak gailu honetan egin dezakeen aldaketarik. Edozein aldaketak bertan behera utz dezake ekipoa erabiltzeko erabiltzaileari emandako baimena. Ikus 47 CFR, 15.21 sek. WiFi 802.11a-rekin bateragarriak diren produktuentzat (produktuaren zehaztapenetan definitzen denez, www.motorola.com-en daude eskuragarri), ondoren zehaztutako informazioa aplikatzen da. Gailu honek 5 GHz UNII (Unlicensed National Information Infrastructure) banda erabiltzen du WiFi sarerako. Banda hori MSS-rekin (satelite bidezko zerbitzu mugikorra) partekatzen denez, gailu horiek barnean erabiltzeko baimena bakarrik ematen du FCCk (kontsultatu 47 CFR 15.407(e)). Banda horretan jarduten duten WiFi eremuek muga bera dutenez, ez da zerbitzurik eskaintzen kanpoan. Hau da, ez erabili gailuaren WiFi modua kanpoan.

## Kokapen-zerbitzuak (GPS eta AGPS)

Kokapenean (GPS eta/edo AGPS) oinarritutako funtzionalitatea eskaintzen duten Motorola gailu mugikorrei aplikatzen zaie informazio hau. Gailu mugikorrak GPS (Global Positioning System, posizionatze globaleko sistema) seinaleak erabil ditzake kokapenean oinarritutako aplikazioetarako. AEBko gobernuak kontrolatutako sateliteak erabiltzen ditu GPSak; satelite horiek Defentsa Sailaren eta Federal Radio Navigation Plan delakoaren direktiben arabera aldatzen dira. Aldaketa horiek gailu mugikorraren kokapen-teknologiaren errendimenduari eragin diezaiekete.

Zure gailu mugikorrak AGPS (Assisted Global Positioning System, posizionatze globaleko sistema lagundua) ere erabil dezake. Sistema horrek sare mugikor baten informazioa eskuratzen du, GPSaren errendimendua hobetzeko. AGPS-teknologiak zure zerbitzu-hornitzailearen haririk gabeko sarea erabiltzen du, eta, beraz, litekeena da deien iraupenagatik eta datu-zerbitzuengatik kostuak aplikatzea, baita beste zenbait kostu gehigarri ere, zure zerbitzu-kontratuaren arabera. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu haririk gabeko zerbitzuen operadoreari.

### Zure kokapena

Kokapenean oinarritutako informazioan sartzen da gailu mugikorraren kokapena zehazteko informazioa ere. Haririk gabeko sare bati lotutako gailu mugikorrek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. GPS edo AGPS teknologiak aktibatuak dituzten gailuek ere kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Gainera, kokapenean oinarritutako informazioa eskatzen duten aplikazioak erabiltzen badira (adibidez, gidatzeko jarraibidea), aplikazio horiek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Kokapenean oinarritutako informazioa hirugarrenekin partekatu daiteke, baita haririk gabeko zerbitzuen zure hornitzaileekin, aplikazioen hornitzaileekin, Motorolarekin eta hirugarrenen beste zerbitzu batzuekin ere.

### Larrialdi-deiak

Larrialdi-dei bat egitean, sare mugikorrak gailu mugikorraren AGPS teknologia aktiba dezake larrialdietako arretarako zentroari zure gutxi gorabeherako kokapena jakinarazteko.

AGPS teknologiak mugak ditu, eta gerta daiteke zure eremuan ez funtzionatzea. Hori dela eta:

- Jakinarazi zure kokapena ahalik eta zehatzen larrialdietako arretarako zentroari.
- Telefono-bidezko komunikazioarekin jarraitu larrialdietarako arretako zentroak hala egiteko eskatzen dizun bitartean.

## Nabigazioa

Nabigazio-funtzioak eskaintzen dituzten Motorola gailu mugikorrei aplikatzen zaie informazio hau.

Nabigazio-funtzioak erabiltzean, kontuan izan mapen, jarraibideen eta bestelako nabigazio-datuen informazioak datu okerrak edo osatugabeak izan ditzakeela. Zenbait herrialdetan, litekeena da informazio osoa eskuragarri ez egotea. Hori dela eta, egiaztatu egin behar da uneoro nabigazio argibideek ikusten denarekin bat egiten duten edo ez. Gidari guztiek gidatzeari eragin diezaioketen errepideetako kondizioetan jarri behar dute arreta, esaterako, etenaldiak, zirkulazioa eta bestelakoak. Errespetatu, beti, errepideko seinaleak.

## Gidatzen ari zarela arduraz erabiltzea

**Irakurri gidatzen ari zarela mugikorrak eta horien osagarriak erabiltzeari buruzko herrialdeko legeak eta arauak. Bete itzazu beti. Baliteke gailuak erabiltzea debekatuta edo mugatuta egotea zenbait eremutan, adibidez, esku libreko funtzioa soilik erabiltzeko.** Ikus www.motorola.com/callsmart **gunea (ingelesez bakarrik) informazio gehiago izateko.**

Zure gailu mugikorrak aukera ematen dizu ahots edo datu bidez komunikatzeko, ia edozein tokitan eta edozein unetan, baldin eta haririk gabeko zerbitzua erabilgarri badago eta horretarako aukera ematen duten segurtasun-baldintzak badaude. Autoa gidatzen ari zarenean, gidatzea da lehenengo ardura. Gidatzen ari zaren bitartean telefono mugikorra erabiltzea erabakitzen baduzu, gogoan izan aholku hauek:

- **Ezagutu Motorola mugikorra eta haren funtzioak; adibidez, markaketa bizkorreko funtzioa, berriro deitzeko funtzioa eta ahots bidezko markaketa.** Erabilgarri badaude, funtzio horiek deitzen lagunduko dizute, errepidera arretaz begira segitzen duzun bitartean.
- **Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.** Ahal bada, erabil ezazu zure mugikorra erosoago, Motorola Originalen esku libreko osagarrietako batekin.
- **Jarri telefono mugikorra erraz hartzeko moduan.** Errepidera begiratzen duzun bitartean telefono mugikorra hartzeko aukera izan behar duzu. Egokia ez den une batean dei bat jasotzen baduzu, ahal baduzu, utzi ahots-postontziari erantzuten.
- **Jakinarazi solaskideari gidatzen ari zarela, eta, behar izanez gero, amaitu deia zirkulazio handia edo eguraldi oso txarra badago.** Euria, elur bustia, elurra, izotza eta zirkulazio handia arriskutsuak izan daitezke.

- **Ez hartu oharrik eta ez begiratu zenbakirik gidatzen ari zaren bitartean**. "Egin beharrekoen" zerrenda osatzeak edo agenda begiratzeak arreta galaraz diezazuke, eta seguru gidatzea eragotzi.
- **Deitu zentzuzko kondizioetan eta aztertu zirkulazioaren egoera, eta, ahal bada, deitu autoa geldirik dagoenean edo martxan jarri aurretik**. Gidatzen ari zarela deitu behar baduzu, markatu zenbaki batzuk bakarrik, begiratu errepidera eta ispiluetara, eta segi markatzen.
- **Ez eduki arreta galaraz diezazukeen elkarrizketa estresagarririk edo sentikorrik**. Jakinarazi solaskideari gidatzen ari zarela, eta amaitu arreta errepidetik desbidera dezaketen elkarrizketak.
- **Erabili gailu mugikorra laguntza-deiak egiteko**. Sute, auto-istripu edo larrialdi medikoren bat gertatuz gero, markatu 112 zenbakia edo beste larrialdi-zenbaki bat (telefonia mugikorreko zerbitzu hori dagoen lekuan).
- **Erabili mugikorra larrialdi-egoeran dauden beste pertsonei laguntzeko**. Auto-istripu edo delituren bat edo beste larrialdi-egoeraren bat ikusi baduzu eta norbaiten bizia arriskuan badago, deitu 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki batera, (telefonia mugikorreko zerbitzu hori dagoen leku batean) zure kasuan beste norbaitek egitea nahiko zenukeen bezala.*
- **Deitu errepideko laguntza-zerbitzuetara edo haririk gabeko laguntza-zenbaki bereziren batera, behar izanez gero**. Arriskurik eragiten ez duen eta matxuratuta dagoen ibilgailu bat, hondatutako trafiko-seinale bat, zauriturik eragin ez duen garrantzi txikiko istripuren bat edo lapurtutako ibilgailu bat ikusi baduzu, deitu errepideko laguntza-zerbitzuetara edo haririk gabeko beste zenbaki bereziren batera (telefonia mugikorreko zerbitzu hori dagoen leku batean).

## Pribatutasuna eta datuen babesa

Motorolak badaki pribatutasuna eta datuen segurtasuna garrantzitsuak direla. Mugikorreko funtzio batzuek pribatutasunari eta datuen segurtasunari eragin diezaioketenez, segi aholku hauen zure informazioa hobeto babesteko:

- **Sarbide-kontrola**: Mugikorraren erabiltzaileak aldean eduki behar du beti, eta ez du utzi behar inolako kontrolik gabe besteek erabiltzeko aukera izan dezaten. Erabili gailuaren blokeo- eta segurtasun-funtzioak, horiek eskuragarri daudenean.
- **Eduki softwarea eguneratuta**: Motorolak edo softwareen edo aplikazioen haren hornitzaileak mugikorrerako adabakiren bat edo doikuntzaren bat salgai jartzen badu eta horrek mugikorraren segurtasuna areagotzen badu,k instala ezazu lehenbailehen.

- **Nola ziurtatu zure informazio pertsonala**: telefono mugikorrak hainbat lekutan gorde dezake informazio pertsonala, baita SIM txartelean, memoria-txartelean eta telefonoaren memorian ere. Egiaztatu informazio pertsonal guztia ezabatu duzula gailua birziklatu, itzuli edo bota aurretik. Datu pertsonalen segurtasun-kopia ere egin dezakezu, gailu berrira transferitzeko. Oharra: segurtasun-kopiak egiteari edo gailu mugikorraren datuak ezabatzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jo hona: www.motorola.com/support.
- **Lineako kontuak**: gailu mugikor batzuek Motorolaren lineako kontu bat ematen dute (adibidez, MOTOBLUR). Zoaz zure kontura kontua kudeatzeari eta segurtasun-funtzioak erabiltzeari buruzko informazioa eskuratzeko, adibidez, urrutitik ezabatzea eta gailuaren kokapena (eskuragarri badago).
- **Aplikazioak eta eguneratzeak**: kontuz aukeratu aplikazioak eta eguneratzea, eta fidatzen zaren iturrietatik datozenak soilik instalatu. Zenbait aplikaziok telefonoaren errendimenduari eragin diezaiokete eta informazio pribatura sartu, adibidez, kontuko datuetara, deien datuetara, kokapenaren xehetasunetara eta sareko baliabideetara.
- **Haririk gabeko konexioa**: WiFi funtzioa duten gailu mugikorrak konfiantzazko WiFi sareei bakarrik konektatu. Gailua WiFi eremu mugikor gisa erabiltzean (funtzio hori eskuragarri badago), aktibatu ezazu sareko segurtasuna. Hala, zure gailura baimendu gabe sartzea saihestuko duzu.
- **Kokapenean oinarritutako informazioa**: kokapenean oinarritutako informazioan sartzen da gailu mugikorraren kokapena zehazteko informazioa ere. Haririk gabeko sare bati lotutako telefono mugikorrek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. GPS edo AGPS teknologiak aktibatuak dituzten gailuek ere kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Gainera, kokapenean oinarritutako informazioa eskatzen duten aplikazioak erabiltzen badira (adibidez, gidatzeko jarraibidea), aplikazio horiek kokapenean oinarritutako informazioa transmititzen dute. Kokapenean oinarritutako informazioa hirugarrenekin partekatu daiteke, baita haririk gabeko zerbitzuen zure hornitzaileekin, aplikazioen hornitzaileekin, Motorolarekin eta hirugarrenen beste zerbitzu batzuekin ere.
- **Zure gailuak eman dezakeen beste informazio-mota bat**: zure gailuak probatarako informazioa eta beste zenbait diagnostiko eman ditzake (baita kokapenean oinarritutako informazioa ere), eta beste zenbait motatako informazioa Motorolari edo hirugarrenen beste zerbitzari batzuei. Motorolak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak hobetzen laguntzeko balio du informazio honek.

Gailuaren erabilerak zure pribatutasunean eta datuen segurtasunean duen eraginari buruz gehiago jakin nahi baduzu, jarri harremanetan Motorolarekin, privacy@motorola.com helbidera idatzita, edo zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## Erabilera eta mantentze-lanak

Kontuan har itzazu Motorola gailu mugikorraren zaintzari buruzko ohar hauek:



**Likidoak**
Ez utzi gailu mugikorra uraren, euriaren, kanpoko hezetasunaren, izerdiaren edo bestelako hezetasun-moten eraginpean. Telefonoa busti egiten bada, ez erabili labe edo lehorgailurik hura lehenago lehortzeko; izan ere, gailu mugikorra hondatu egin daiteke.



**Bero edo hotz handia**
Ez gorde eta ez erabili gailu mugikorra –10 °C baino tenperatura baxuagoan edo 60 °C baino altuagoan. Ez kargatu gailu mugikorra 0 °C baino tenperatura baxuagoan edo 45 °C baino altuagoan.



**Mikrouhinak**
Ez saiatu gailua mikrouhin-labe batean lehortzen.



**Hautsa eta zikinkeria**
Ez utzi gailu mugikorra hautsaren, zikinkeriaren, harearen, janariaren edo desegokiak diren beste hainbat materialen mende.



**Garbitzeko produktuak**
Zure gailu mugikorra garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorra. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbigarririk.



**Kolpeak eta bibrazioak**
Ez utzi erortzen zure gailu mugikorra.

**Babesa**
Zure gailu mugikorra babesteko, ziurtatu bateriaren eta konektoreen estalkiak guztiz itxita daudela beti.

# Birziklatzea

## Gailu mugikorrak eta osagarriak

Ez bota gailu mugikorra eta osagarri elektrikoak –adibidez, kargagailuak, entzungailuak edo bateriak– etxeko zakarretara ezta sutara ere. Udalek eta erkidegoek aplikatutako estatuko birziklatze- eta bilketa-planaren arabera bota behar dira artikulu horiek. Nahiago baduzu, eraman Motorolak onartutako edozein zerbitzu-zentrotara behar ez dituzun gailu mugikorrak eta osagarriak elektrikoak. Motorolak onartutako estatuko birziklatze-planei eta Motorolaren birziklatze-jarduerei buruzko informazio gehiago duzu web gune honetan: www.motorola.com/recycling

## Bilgarria eta produktuaren gidak

Estatuko birziklatze- eta bilketa-baldintzen arabera bota behar dituzu produktuaren bilgarria eta eskuliburuak. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri harremanetan erkidegoko agintariekin.

# Softwarearen egile-eskubideei buruzko ohartarazpen legala

Motorolaren produktuek Motorolaren edo hirugarrenen softwarea eduki dezakete, erdieroalezko memorietan edo bestelakoetan grabatuta, egilearen eskubideek babestuta. Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako legeek eskubide berezi batzuk eman dizkiete Motorolari eta beste software-fabrikatzaileei egile-eskubideek babestutako softwareari dagokionez; besteak beste, software hori banatzeko edo erreproduzitzeko eskubideak. Beraz, Motorolaren produktuetako egile-eskubideek babestutako softwarea ezin izango da aldatu, banatu, erreproduzitu edo alderantzizko ingeniaritzan erabili, legeak ezarritakoari jarraiki. Gainera, Motorolaren produktuak erostea ez da hartu behar lizentziatzat –zuzenekoa edo inplikaziokoa, alegaziokoa edo bestelakoa–, egile-eskubidetzat edo Motorolaren edo beste software-fabrikatzaileen patente edo patenteen aplikaziotzat. Erabilera arrunterako lizentzia bakarrik ematen du, ez erabilera esklusiboa eta eskubiderik gabea, produktua saltzetik inplizituki sortua.

## Edukiaren egile-eskubideak

Egile-eskubideen mende dagoen materiala baimenik gabe kopiatuz gero, Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako egile-eskubideei buruzko legeetako xedapenak hausten dira. Gailu hau bakarrik erabil dezakezu egile-eskubideen mende ez dagoen materiala kopiatzeko, hau da, egile-eskubideak zureak diren materialen kasuan edo legez kopia ditzakezun materialen kasuan. Materiala kopiatzeko eskubideei buruzko zalantzarik baduzu, jarri harremanetan zure abokatuarekin.

## Kode irekiko softwareari buruzko informazioa

Motorolaren gailu mugikor honetan erabiltzen den softwareari dagokionez Motorolak jendearentzat eman duen iturburu-koderen baten kopia nola lortu jakin nahi baduzu, bidali mezu bat helbide honetara eskaera egiteko. Egiaztatu eskaeran modeloaren eta softwarearen bertsio-zenbakiak sartzen dituzula.

MOTOROLA MOBILITY, INC.
OSS Management
600 North US Hwy 45
Libertyville, IL 60048
USA

Motorolaren opensource.motorola.com web guneak ere badu Motorolaren kode irekia erabiltzeari buruzko informazioa.

Software-komunitateak, oro har, atari interaktibo gisa erabil dezan sortu du Motorolak opensource.motorola.com web gunea.

Motorolaren gailu mugikor honetan erabilitako kode irekiko paketeetarako lizentzia, kreditu eta copyright-abisuei buruzko informazio gehigarria ikusteko, sakatu menu-tekla **> Ajustes > Acerca del teléfono > Información legal > Licencias de SW libre**. Gainera, Motorola gailu honek aplikazio independenteak izan ditzake, aplikazio horietan erabilitako kode irekiko paketeetarako ohar osagarriak dituztenak.

# Copyright-a eta marka komertzialak

www.motorola.com

Zenbait zerbitzu, funtzio eta aplikazio sarearen menpe daude, eta, gerta daiteke eremu guztietan erabilgarri ez egotea; baliteke beste zehaztapen, baldintza eta tarifa batzuk aplikatzea. Informazio gehiago behar baduzu, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira inprimatzeko unerako. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

**Oharra**: eskuliburu honetako irudi guztiak adibide-gisa baino ez daude.

MOTOROLA eta M estilizatuaren logotipoa Motorola Trademark Holdings, LLC-ren marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira. Google, Inc.-en marka komertzialak dira Google, Googlen logotipoa, Google Maps, Google Talk, Google Latitude, Gmail, YouTube, Picasa, Android eta Android Market. Gainerako produktuen edo zerbitzuen izen guztiak beren jabeei dagozkie.

© 2011 Motorola Mobility, Inc. Eskubide guztiak erreserbatuta.

**Kontuz**: Motorolak ez du bere gain hartzen transzeptoreari egindako aldaketengatiko ardurarik.

Productuaren IDa: Motorola FIRE™

Eskuliburuaren zenbakia: 68004151004

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de Gestión 2008